

Getxo >MEETING<



BA AL DAKIZU ZER EGIN GENUEN MARTXOAREN 15EKO GETXO MEETINGEAN? BLOGEI BURUZ HITZ EGIN GENUEN.

Martxoaren 15eko Getxo MEETINGean askotariko blogetarako edukia sortu genuen. 15 egunean behin egiten ditugun topaketa horien helburua da ideiak sortzea eta berdinen artean partekatzea eta ikastea. Gainera, aukera ona da saretzen hasteko.

Aurreko osteguneko saioan aritu ginen blog bat izatearen garrantziaz, bloga izatearen abantailez, hura mantentzeak dakarren lanaz eta enpresaren jarduerarekin lotuta dauden eduki interesgarriak sortzeko moduz. Hausnarketa hori partekatzean honako gauza hauek bezalakoak agertu ziren:

- Zure negozioa ikusarazten laguntzen du
- SEO posizionamendua hobetzen du
- Sektoreari buruz duzun ezagutza erakusten laguntzen du
- Zure zerbitzuen edo produktuen inguruko informazioa jartzeko balia dezakezu

Hausnarketa bateratu horren ondoren, eta kaferako tartetxo informalago horretarako geldialdi bat egin eta gero, blogekin lanean hasi ginen. Parte hartzaileetako inork ez zuen blogik, beraz, ariketa hasieratik hasi zen. Blog bakoitzari izena eman zioten, hitz gakoak jarri zizkieten eta formatua eman zioten.

Eraikitako blogen panela genuenean, *role playing* ariketa bat egin genuen blogeko irakurleen lekuan jartzeko, eta gai horretako blog batean irakurri nahiko lituzketen izenburuak, gomendioak, gaiak eta beharrak oparitzeko blog bakoitzari.

Parte hartzaile bakoitzak post batzuk prestatzen hasteko 7 ideiatik gora jaso zituen.

Enpresarako blogik izateko aukera buruan ez zuen parte hartzailearen bat ere irten zen artikulu batzuk garatzeko hainbat izenburu sortzeko ideiarekin.

Taldeak, oro har, Getxo Meeting oso ekimen gomendagarri gisa balioetsi zuen, “beti negoziatorako zerbait onuragarria lortzen baituzu bertatik”.

Hurrengo saioa Aste Santuaren ondoren izango da. Ez ahaztu, eman izena eta gozatu oporrak. Bueltakoan ikusiko dugu elkar!